




KALAPUTXI


Mutrikuko herri-aldizkaria
2026ko iraila - 274 zkia.



Omar Thior

Eskerrik asko entzun eta partekatu nahi izateagatik

AUZOLANA, HERRITARREN ERANTZUNA • QR KODEA: INFORMAZIOA ESKURATZEKO BIDE AZKARRA
BERTAN, MUTRIKUARRENTZAT ZABALIK • JUAN MARIA ALTZIZKUETA, AROTZ
AMA, ETA AMAREN TRAZAKOAK



MATRIKULA IREKIA IRAILEAN

IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak eta autoikaskuntza modalitatekoak.

Euskarara hurbiltzen hasteko edo euskarara sakontzekoak: oinarriak hartzeko, askatzeko, euskara jasoan konfiantza hartzeko...

Maila guztietan, A1etik C2raino.

LAGUNTZAK

Matrikula erdia langabetu, ikasle, guraso eta jubilatuak.

Eusko Jaurlaritzaren bonuak eta gazteentzako laguntza bereziak.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
LUARDO ETXEA, Sabanika aldapa 4 - 943 60 30 94



HA/KA

FISIOTERAPIA · ERREHABILITAZIOA · ERREADAPTAZIOA
 ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUAK · KIROL ERRENDIMENDUA



633 97 44 93



Antzomendi Poligonoa 1C

Osasuna

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zaldugei	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Elortza Elortza (Eibar)	943 20 61 00

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kirolegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaiz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsartzioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

JOSEBA taxia	688 68 10 13
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	900 12 14 00
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN

AURREKO TEL. 900 840 111

PANTAIEN LUBAKIETATIK ASKATZEN

Denboraren baitan ibiltzen gara. Denboraz hitz egiten dugu sarri: ze denbora gutxi daukagun, zenbat denbora falta den hitzordu berezi baterako (norberaren urtebetetzerako, adibidez), zenbat denboraz aritu naizen amarekin hitz egiten, zenbat denbora eman dudana jarduerak egiten, kotxean hara eta hona... Eguraldiaz hitz egiten dugunean ere, maiz, denbora adiera erabiltzen dugu. Denboraren baitan neurtzen dugu bizitza, bizitza bera ere denboraren korrelazio bat baita.

Ikasturte berri bat hasi dugu orain gutxi. Kalbaixo jaiek apur bat atzeratzen dute errutinen morroitzan murgiltzea. Eta gaitzerdi! Errutinen morroitzan murgiltzeak esan nahi duelako sarri burua ezin altxatuta ibiltzea, erritmo bizi eta zorabiatzeko modukoan erdi galduta sentitzea. Erdi galduta baina, aldi berean, bizitzari zentzua erritmoa biziak emango balio bezala. Bada gauza kuriosoa.

Ohitu gara bideo motzak ikusten, bi minututik gorako bideoak aspergarriak iruditzen zaizkigu baina oharatu orduko, ordu bat pasatxo daramagu bideo motz horiek ikusten. Erritmo bizian baina bizitza pausatuta. Gure buruarekin ere madarikatzen gara, denbora alferrik gaitzen egon garenaren sentazioarekin; baina bihar ere betiko leloaren betiko leloa... Autobusari itxoiten ari garela, afalaurretik, ohean. Bideo motzak ikusten pilatzen ditugu minutuak, orduak. Ikerketa batzuk diote ametsen konfigurazioa ere alda dezakeela lo hartu aurretik 'reels' edo dena delakoetan murgiltzen bagara. Amesteko gaitasuna aldrebesten digute, inspirazioa kendu eta baita arreta mantentzeko ahalegina lausotu ere.

Irailean argitaratu den azken PISA txostenak azaleratu du testuen ulermenean, matematiketan eta zientzietan beharrekada nabarmena egon dela Hego Euskal Herrian. Joera bat berretsi du txostenak, honen irakurketak erpin asko baititu eta horietako hainbat neurtezinak direlako mota honetako azterketetan. Baina adituak bat etorri dira esanez pantailen gehiegizko erabilerak badaukala zerikusia. Ez delako soilik arazo pantaila erabiltzea –argi urdinarekiko esposizio handia– hauek gidatzen gaituzten erritmo eta kontsumoa da muina.

Zailtasunak atzeman dituzte 400 hitz baino gehiagoko testuak konprenitzaileak –luzera horixe dauka testu honek–, pantailak ohituta dagoen burmuinak behar dituelako pilula biziak eta ez kontakizun lauso bat, istorio xeberre edo iritzi artikulatu bat. Irakurtzetik harago, nago entzun ere gutxiago entzuten dugula. Entzun arretaz, diot. Eta albokoari entzutea, gertukoari, bizilagunari, ezezagunari, dendari/tabernariari bada inspirazio tresna bat. Denbora behar dugu horretarako ere –baita sukaldatzeko ere, bizitza biziak hori ere kendu baitigu– baina ez dezagun gutxietsi pantailari itsatsita –beharrezko kasuetan soilik–.

Kexatu gaitzeko 15 urteko nerabeen arreta eta ezagutza maila jaitxi delako, baina ez gara libre erantzukizunetik. Gehiengo jausi gara gupil zoro horretan, bizitzan zorabiatutik, pantailen lubakien atzean babestuta bageunde bezala. Gizartearen ezintasunaren isla da emaitza, ez haur konkretu batzuen ezjakintasuna.

Badaude oasi batzuk eta hauek indartu beharko genituzke ganoraz aurrera egiteko, ikasturteari beste begi batzuekin begiratzeko, gorpuz makurtua inarrosteko: Kalbaixo egunean, goitibeheren joan etorrian, sortzen diren hizketaldiak, anekdotak; amarekin whatsapppe baina telefonoz hitz egitekoan, barrua astintzerakoan; bikotekiaderekin batera liburu bat elkarrekin irakurtzean sortzen diren hausnarketak. Denbora pausatuta behar dugu, etxeetatik hasi eta ikasgeletaraino, pantailen lubakietatik askatu behar dugu, gutxika-gutxika.

Argitaratzailea

Karenka Komunikazio Elkarteak
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus

Webgunea: www.kalaputxi.eus

Bloga www.kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak

Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal

Tirada 2.200 ale

Lege Gordailua SS-787/01

ISSN 1579-4792

Inprimategia EUSKALINPRI

Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkariak
Mutrikuko Udalen dirulaguntza
jasotzen du:



Mutrikuko Udala



NEGUKO ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

... MUTRIKUTIK

DB03 DONOSTIAra

06:45(Unibertsitatetik); 10:20; 13:20; 18:20

DB04 MALLABIAra

07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15; 22:45 (Ostr. 23:25; 01:15)

DB05 ZUMAIa

06:20; 09:25; 11:25; 13:25; 16:25; 18:25

DB06 SORALUZEra

08:45; 10:45; 12:45; 14:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKURA

DB03 DONOSTIAtik

08:00; 11:00 14:30 (Unibertsitatetik); 18:00; 20:30

DB04 (MALLABIA) EIBARTik irteteko ordua

06:10; 07:05; orduro; 21:05; 22:15 (lanegun ostr.); 0:00 (ostr.)

DB05 ZUMAIatik

08:10; 10:10; 12:10; 17:10

DB06 SORALUZetik

07:40; 09:40; 11:40; 13:40; 16:40; 18:40; 20:40

LARUNBAT, IGANDE ETA JAI EGUNAK

... MUTRIKUTIK

DB03 DONOSTIAra

08:30; 13:00; 17:30; 19:30

DB04 MALLABIAra

07:15, orduro, 20:15; 21:25; 22:15 (Lar.: 23:25, 23:55; 01:55; 03:55; 05:55)

DB05 ZUMAIa

08:25 (Lr.); 10:25; 12:25; 14:25; 16:25; 18:25; 20:25

DB06 SORALUZEra

09:45 (Lr.); 11:45; 13:45; 17:45; 19:45; 21:45

... MUTRIKURA

DB03 DONOSTIAtik

10:30; 14:30 17:00; 20:30 (Ig.); 21:00 (Lr.)

DB04 (MALLABIA) EIBARTik irteteko ordua

07:00; orduro; 22:00; 22:15 (Ig.)

DB05 ZUMAIatik

09:10 (Lr.); 11:10; 13:10; 15:10; 17:10; 19:10; 22:10 (Lr.)

DB06 SORALUZetik

08:40 (Lr.); 10:40; 12:40; 16:40; 18:40; 20:40



www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265



ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40



Javier Barrenetxea Ansorregi «Jabito»

Mollako kantaria
ahots argi dotoria
beti jartzen umoria
eskeini dizkiguzu
une zoragarriak.

Gizon, atxa eta
aitona maitagarria
Izan zaitez beti
gure bizitzako argia.



Eskerrik asko familiako guztion izenean lagun, ezagun eta herritar guztioi zuen hurbiltasunagatik

KALAPUTXIREN AIENEAK

I	II	III	IV
Izkiriaturik behar zirela euskaraz gure kontuak, hitz-aspertutan onartu zuten ilusioz han bilduak. Laster batean erruteari eskain zioten orduak, babes lekuan ondo estaliz hausnarretan lortuak hala arnastu nuen lehenik euskararen hitz goxuak.	Beldar bezala atera nintzen nire beharrari lotuz hizki, esaldi, paragrafoez ezin geldi elikatuz. Gehiago ezinik gorputz osoa barne hari finez bilduz krisalida bat bilakatzeke sortu nuen poltsan sartuz azken ukitu eta kolorez ene gorputza apainduz.	Mende laurdena betetzear da urriko hilabetearen amets besterik ez zen ideia hegaldi bilakatzean. Kale, baserri, atzerriraino ibilia naiz airean sukalde bero, esku ximurrak azalean bizitzean sentipen eder guztiak ditut gordeak nire bihotzean.	Baina, ai ene! nire hegala dira ahulak eta fin hats beroaren bultzada gabe airean mugitu ezin. Hauspogileak nekatu dira aurrerago ezin egin, aurtengo urtea beteko dute hurrengo nortzuekin? Zu irakurle prestu bazaude solastu lasai gurekin.

KALAPUTXIK jarraitu nahi luke, berriro beldar bilakatu eta krisalida berri bat sortu behar bada ere. Jarri gaitzen harremanetan!



ENTZUSKO ATAJUA ZABALDU!

Udal artxiboetan Entzuso atajuari buruzko lehen aipamena XIX. mende hasierakoa da. Garai hartako ofiziozko auto zibil batean adierazten denez (MUA 1036, C/236-06), 1815. urteko uztailaren 22an Julian Txurruka alkateak albiste beltz baten berri izan zuen: herritar bat hilda aurkitu zuten Entzus aldean, «*en un jaro de castaño o paraje de Enzus sobre el camino real antiguo*». Francisco Paula Etxeberria Barrueta (1779) zen hildakoa, 35 urteko gizasemea. Perretxikoak biltzen zebilen hil zenean. Gorpua aztertu zutenean, hilketa izan zela susmatuta, ikerketa abiatu zuen alkateak.

Mutrikuko alkateak deklarazioa hartu zien hainbat laguni, tartean 15 urteko Jose Maria Txurruka Aranberriari (1800): «*...serian a su parecer las dos poco mas o menos quando partio de su casa para su destino, que fue a la caseria de Arrivinieta, que esta a un lado de la maior altura del camino real, a encargar queso y cuajada para el dia siguiente, y fue por el camino de San Miguel a salir al nuevo, y por esta hasta el pie de la cuesta de los castaños de Enzus, en donde tomo un atajo, que sigue hasta Celayzar, por evitar las bueltas y recodos de dicho camino nuevo, y desde dho punto de Celayzar por este...*».

Ikerketa horretan, Entzus inguruko bide eta lursailak izendatzen diren mapa ere aurkeztu zen, testigantzetan aipatutako bide eta leku izenak garbi identifikatuta.

Mapa eta testigantza horiek, Entzuso atajuaren antzinako ondare izaera erakusten dute, “bien inmemorial” gaztelaniaz. Horretaz gain, Entzuso atajua gutxienez 1815. urtetik gaur arte erabili izan dela erakusten digu, eta horren lekuko dira hainbat mutrikuarri jasotako testigantzak eta atajuaren aipamena egiten duten dokumentu ofizialak (eskriturak eta udal aktak).

Testigantza horretan, batez ere atajuak bidea laburtzeko

izan duen funtzioa adierazten da, “*por evitar las bueltas y recodos de dicho camino nuevo*”, eta pasabide historiko moduan duen garrantzia ere bai, gaur egun ere funtzio bera betetzen jarraitzen duelako. Kotxerik ez zen garaian baino gutxiago, noski, baina gaur egun ere atajua erabiltzen zuten auzotar zein herritarrak dezente ginen, itxi zuten arte.

Testigantzari jarraiki, XXI. mendeko gazteak ez dira joaten Arribinieta gazta eta gatzatua enkargatzera, baina bai Azkenetxeko pizzak jatera, eta auzotarrak dira testigu, kotxerik ez duten gazte kuadrillak nola jaisten diren oinez, eta horietako batzuk itxita dagoen atajua erabiliz.

Badakigu udala atajua zabaltzeko lanean ari dela, baina oraingoz ez zaio arazoari konponbiderik eman.

Gure aldetik sinadura bilketa jarri dugu martxan,

sinadurak udalean aurkeztu eta udalak “Entzuso atajua” herriaren intereseko pasabide izendatu dezan. Modu horretan, atajua oinezkoentzat zabalik mantentzeko eskumena izango luke udalak.

Eskatzen duguna hau da: entzuso atajua zabaltzea eta oinezkoen pasabide historikoak errespetatzea!

“Entzuso atajuak” duen historia, urtetan izan duen erabilera eta auzotarrentzat zein herritarrentzat duen garrantziagatik, bide hori zabalik mantentzeko eskatzen dugu. Horretarako, “Entzuso atajua” herriaren intereseko bide izendatzea eskatzen diogu udalari, oinezkoentzat zabaldu eta aurrerantzean ere hala mantentzeko.

Sinadura bilketa sare sozialen bidez zabalduko da eta paperean sinatu nahi duenak ere izango du gure berri.

Sinadura online emanteko hemen QR kodea:



«Zorbideak zabalik» herri ekimena

DIKEA GUZTIONTZAT ERABILGARRI

Udako egun hauetan iluntzean, haize pixkat hartu nahian, pasiatzera atera, eta hondartzan aurrera dikera bidean konturatu orduko burdinazko hesiarekin topo, berriz ahaztu dut beheko bidea pistina berritik hartu behar nuela!, arrapadun bidea itxita baitago ditxosozko harritzarrak babesteko. Orain dela 4 urte Eusko Jaurlaritzaren araudi batek jaso baitzuen obra bat burutzeko bertan eduki behar zirela. Baina zeinen buruan sartzen da inon egitura bat luzatzeko lanei ekitea aurrez zimenduak ondo ikuskatu gabe? Horrela behin-behinekoa zena luzerako daukagu: harritzar hauek gurekin gelditzeko etorri dira.

Nire aukera erraza izan da, atzera egin eta beheko bidea hartu dut, pistina berri ondorik eskailerak igo, ondoren beste eskailerak, eta dikean zehar pasian jarraitu dut. Baina gurgildun aulkian dagoenak zer egin du urte hauetan? Non da bere eskubidea? Hutsaren hurrengo.

Herritar denok sufritzen dugu portua egoera honetan egonik, kanpotarrek galdetzen digutenean... baina benetan sufritzen dutenak gurgil-aulkian daudenak eta ezinduek dira. Non gelditzen da irisgarritasun-kontzientzia? Ez al dago burdinazko hesia mugitzea arranpa libre uzteko?

Onintza Enbeitaren pregoia gogoan, nik pribilegiotxo hau aprobeztatuko dut egoera tamalgarri hau plazaratzeko.

Aitziber Dorronsoro Aizpurua

AUZOLANA

herritarren erantzuna

Abuztuaren 11n jende andana bildu zen igerileku zaharreko zabaleran Udalak deialdia egin ondoren. Egun hartako zeregina igerileku zaharreko algak biltzea. Prozesuaren berri jakin asmoz udaletxera jo dugu, eta bertan zinegotzi batek kontatu dizkigu xehetasunak.

Prozesua azaltzerik bai?

Algak agertu zirenean, hasiera batean, Pedro «Txordo» etorri zen udaletxera esaten bera hasiko zela algak jasotzen eta gero horiek nora eraman ahal zituen jakin nahian. Diputazioarekin jarri ginen harremanetan zehazteko zein izan zitekeen egiteko modua. Jasangarritasun sailak kudeatzen ditu hondartzak, bera arduratzen da hondartzen garbiketaz, baina igerilekuak linbo antzeko batean aurkitzen dira; izan ere, izan portuko zuzendaritzarena da eremu hori, baina portuan berez ezin da bainatu eta... Hor dago kokka. Horretaz aparte, Jasangarritasun sailak honen berri gehiago zeukan, Gipuzkoako zenbait hondartzatan agertu zirelako, portuetan ez hainbeste... Mutrikuko kasua arraroa izan da.

Eta dagoeneko Pedro «Txordo» hasita zegoen bilketan...

Bai, berak jaso eta Danborraren atzeko gunean uzten zituen, eta, era berean, hondartzetakoek ere jaso eta eramaten zuten. Kontua da, gero eta alga gehiago hasi zirela iristen igerilekura eta «Txordo»ren lanak ez zuela eraginik, aldi berean usaina ere handitzen joan zen. Une horretan herritar batzuk ere hurbildu zitzaizkigun udaletxera esanaz zerbait egin behar zela eta prest zeudela horretarako. Bainurako baldintzak okertzen zihoazela ikusita hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua zela erabaki genuen.

Eta ordezkari desberdinekin ekin zenioten...

Igerilekua garbitzeko erabakia hartu ondoren mahaiaren bueltan bildu ginen «Txordo», Arraun taldeko kideak, zinegotziak, teknikariak eta beste zenbait lagun. Arraun taldearekin harreman estua dugu urtean zehar, portuko balizajeaz arduratzen delako, igerilekua hustutzeaz, petrill garbiketaz... eta beraien parte hartzea guretzat oso garrantzitsua zen. Plan bat diseinatu genuen denon artean. «Txordo»k bazituen ideia batzuk buruan eta han jasotako besteekin aurrera egitea erabaki zen. Lana aurrera

eramateko udaleko zinegotziak eta brigadakoak nahikoa ez ginela ikusita, herritarrei deia luzatzea erabaki genuen.

Eta deia egin zenuten...

Hartutako ezustekoa izugarria izan zen, goizeko zortzietan jendea eta jendea, berrehun lagunetik gora... ikaragarria! Eta bakoitzak jakin zuen non jarri eta ekin zion lanari: batzuk uretan, besteak petriletan... eskuz esku kaxa beteak eta hutsak pasatzen... Argazki gogoangarria. Jaso ahala kontainer batera botatzen zen. Ia-ia bete gnuela esan dezakegu.

Eta algekin zer egin?

Debabarrena Mankomunitateak jaso ditu eta hortik aurrerakorik ez dakigu. Garai batean jasotzen omen ziren era erabilpen bat ba omen zuten, baina orain ez dakigu zer egingo duten.

Eta aurrera begira?

Hondoko itsasoa dabilenean errazago sartzen eta ateratzen dira algak. Gure helburua bainu sasoia salbatzea izan da, irailetik aurrera egoera beste bat izango delakoan. Dena den, arazoa handia da. Guri aurten agertu zaigu, baina Espainiar Penintsulan aurretik dabilta honekin. Laredo eta Nojan iaz ere izan zuten. Egia da hondartzetan agertzen direla eta errazagoa dela biltzea, gure kasua desberdina da. Andaluzian urteak daramatzate arazoarekin eta badirudi arrantzan ere arazo bilakatu dela, sareetan arrainen ordezkariak jasotzen dituztelako. Arazoa potoloa da, klima aldaketaren ondoriak gurekin ditugu.

Udalaren balorazioa...

Auzolanaren balorazio oso-oso positiboa egiten dugu. Arazoari aurre egiteko orduan pilak jarri eta aurrera egiteko gaitasuna dugula ikusi da, beraz, herritarrei eskerrak ematea baino ez.



IBARPLAS

leihoaren erreferentzia



Herriarrak auzolanean algak jasotzen

AUZOLANA

Baserrietan ere lan asko egin ohi dira auzolanean. Garia biltzea, belarra ondu eta jasotzea eta bidegintza dira aipagarrienak. Belarrak ondu eta jasotzeko garaian, belar moztera elkartzen ziren baserri ezberdinetako mutilak eta ondoren elkarri lagunduz jasotzen zituzten belarrak, batez ere, mutil bakarra edo mutilik ez zegoen baserrietan. Gari ebatea eta gari jotzea ere auzolanean egiten ziren. Uzta zetorren neurria ikusi eta lehenengo heltzen ziren baserrietik hasita segidan-segidan egiten ziren gari jasotzeko lanak ere.

Neguko lana izan ohi zen bidegintza. Beren zelai, mendi, soro edo lurretara joateko bidea erabiltzen zuten baserri guztietatik joan ohi zen norbait bidegintzara, horretarako izendatzen ziren egunetan. Baserriren batean inor ez bazegoen bidegintzara joateko moduan, orduan, dirutan ordaintzen zuen zegokion lana.

Mutrikun, 1906an, udalak ogia eta ardoa ordaindu zien auzolanean Entzustik gorako bidea egitera joan zirenei. Ondabarrotik gora Olatzera bidea egiteko garaian ere udalak ordaintzen zien bidea egitera joaten zirenei ogia eta ardoa.

Horiez gain, auzotarrek erabiltzen zuten ur, aska edo uhaskak garbitzera ere elkartzen ziren auzotarrak eta auzolanean egiten zituzten guztien onurarako zirenak. Azkenik, Elizako teilatua eta antzerako lanak egitera ere deitzen zitzairen herritarrei auzolanera.

Arantza Ugarte (Oikina)

AUZOLANA NAGUSILAN

Auzolanaren harira *Nagusilane*ko kide batek ekarri digu gogora aspaldiko kontu bat. *Nagusilane*en barruan ba omen zegoen sail bat non Administrazioak garbitzen ez zituzten hondartzetan aritzen ziren, lau urtarotetan: neguan, udaberrian, udan eta udazkenean. Sei-zazpi urtez aritu ziren Mutrikun hirugarren hondartzan, pandemia tarteko eten zen lana.

Itsasoak ekarritako hondakin denak jasotzen zituzten ekimen hartan, organikoa izan ezik, txori lumak edo antzekoak utzi egiten zituzten haitzetan. Jasotako hondakin guztiak Burumendira igo eta han sailkatzen zuten banan-bana: plastikoak, sokak, egur zatiak, zigarrokinak... dena.

Hondakinak sailkatu ondoren bakoitzetik zenbat zegoen ere apuntatzen zuten. Lana zehatza zela dio baina polita. Nagusilanekeoz gain Anaiarte Elkarteko zenbait kidek parte hartzen omen zuten.

Orduan ere, herritar guztiontzat eta naturarentzat onuragarria zen ekintza hartan herritarrek hartu zuten protagonismoa, inork behartu gabeko lana norbere borondatez eginez.

Nagusilan



MUTRIKUKO ENERGIA KOMUNITATEA



Joseba ZIZZO TAXIA · 688681013

ASMO TXARREKO EKINTZAK ARNOKO ATERPEAN

Abuztuaren 20an, Arnoko aterpetxean asmo txarreko ekintzak egin zituztela jakin zuten Burumendi Mendi Elkarteko kideek. Arnora igo zen mendizale batek eman zien horren berri: “Arnoko aterpetxeko mahaia eta bankuak sasiartera botata, teilatuan ikurrina, ganberrada bat”. Haserre agertu dira mendi taldeko kideak. Izan ere, aterpetxeak edo refugioak beti izan dira mendizaleentzako babeslekuak: atsedean hartu eta indarrak berritzeko etxeak, mendizaleen etxeak. Arnokoa ere herriko mendizaleek mimoz zaintzen dute, eta urteari hasiera emateko elkargune izaten dute, lagunartean. Horrelako ekintzen aurrean, Burumendi Mendi Elkartek gaitzespena adierazi du, eta argi utzi du ez duela onartzen mendizaleentzako babesleku den espazio baten aurkako jokabiderik.



SAMIKOLLAKE JAIK

Ohi bezala, santu egunaren aurreko larunbatean hasi zituzten jaiak auzokideek, hurbildu zen herriko jende andanarekin batera. Jai batzordekoak, adineko, gazte zein umeek osatutakoa, aurrez hasi ziren jaiaren egitaraua osatzen, eta behar ziren bitartekoez hornitzen: txosna, eszenatoki, jolas, bazkari, argizatze, soinu...

Jaiari hasiera 11:00etan eman zitzaion, txupinazoa, txosna irekiera eta brindisarekin. Ordu berean, erraldoi eta buru-handiak Goiko Plazatik atera ziren Samikollara bidean ume, gazte eta nagusiek lagunduta, txistularien doinu dantzatzuz. Erraldioen dantzak bukatuta, puzgarriak izan ziren umeen erakargarri.

Aurten, lehen aldiz, Nikolas Txikiren jaitsiera ospatu zuten, jai herrikoien aldeko mezua zabaltzen zuelarik jaitsieran, baita auzoko zein herriko kontuak bota ere ironia puntuarekin.

Bazkariarekin jarraitu zuen jaiak. Balentin Zumalabek prestatutako paella (oso txalotua) plater nagusia izanik, zerbitzari prestuek eskainia. Bazkalostea kantuekin girotu zen, Benjamin, hainbat urtetan horretan jardun zuena, gogoan izanik. Kantuak bere bidetik jarraitzen zuen bitartean, zezen txiki eta pottokak izan ziren ume eta gazteak gozatzeko, ondoren karaokeari bide emanez, umeentzat txokolatea zerbitzen ari ziren bitartean.

Iluntzean *Eingo* Taldeak dantzan jarri zituen bertan ziren guztiak, eta jaiak jarraitu zuen goiz aldera arte *Laket* Taldearen kontzertuarekin.

Hilaren 10ean, San Nikolas Egunean, meza ospatu zen, eta zenbait urtetan falta izan ziren «tolentino» bedeinkatuak zabaldu ziren. Sasoi baten Komentuko mojak prestatzen zituzten, eta itsasora jaurtitzen ziren denboralea zenean bare zezaten. Gizonezko baten hitzetan, gaur berak, isil-isilik, sukalde bazterrera botatzen dituela etxean denboralea sortzen bada, eta giroa baretzen dela, nahiz eta ez jakin «tolentino» en eragina den ala isilik egotearena.



LIBURUTEGIAK ORDUTEGI ZABALAGOA ETA LARUNBAT GOIZETAN ZABALIK

Irailaren 17tik aurrera, Liburutegiak ordutegi zabalagoa izango du, eta, gainera, larunbat goizetan ere irekiko ditu ateak.

Aldaketa nagusietako bat larunbat goizetan Liburutegiko zerbitzua eskaintzea izango da: 09:30etatik 13:30etara. Orain arte, ez zen larunbatetan zerbitzurik eskaintzen.

Horrez gain, asteen zeharreko ordutegia ere aldatu eta zabaldu egingo da:

- Astelehenetik ostegunera: 09:30etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara.
- Ostiraletan: 09:30etatik 13:30etara eta 16:30etatik 19:00etara.
- Larunbatetan: 09:30etatik 13:30etara.

Aldaketa honen helburua Liburutegia herritarren eskura egotea eta ordutegi malguagoa eskaintzea da, herritarren beharretara egokituz eta irakurketa, ikasketa eta kulturarako sarbidea erraztuz.



MUTRIKUKO TRAINERUA KONTXAN

Aurtengo urteko ekitaldiari bukaera eman zioten gizonetako arraunlari mutrikuarrek irailaren bian, traineruaren tostetan jarri eta arraunei tinkaturik, Donostiako Kontxako sailkapen estropadan.

Batel eta trainerilla lehiaketetan emakumezkoen garaipenak bizi eta gozatu ondoren, gizonetako txanda etorri zen, eta Arraun Taldekoek zuten ametsa bete zuten trainerua uretara botatzeko gai izan zirenean. Uste baino hobeto aritu dira KAE 2 ligan, ze zortzi txalupetatik seigarren postua

ziurra izan zuten, baita estropada baten euren txanda irabazi ere (bostgarren), eta laugarren lekua lortu Bilboko ibaian erlojupekoan.

Donostiako ekitaldira gozatzera joan ziren klubeko partaide eta lagunek lagundurik. Eskifaia guztia, bat ezik, lehen aldiz aritzen zirenak Kontxan, eta guztiak mutrikuarrek. Nork pentsatuko, gutxi arte futboleko aritutakoak, arraunean hain bikain egingo zutenik. Azkenak klasifikatu baziren ere, irabazle dira.

AUPA MUTRIKU!!!

ERRIGORA DOKUMENTALA

Mutrikuar askok ezagutzen dute dagoeneko Errigora ekimena, udaberrian «Eskutik eskura» eta udazkenean «Euskarari puzka» kanpaineekin hurbiltzean zaigu 2013 urtetik. Ekimenaren helburua bikoitza: batetik, Nafarroa hegoaldeko ekoizleei beren produktuak saltzen laguntzea; bestetik, euskara ofiziala ez den zonaldeko euskalgintzari saldutakoaren laurdena zuzentzea, beren jarduna posible izaten laguntzeko.

Hamahiru urteko auzolan horren historia eta istorioak dokumental batean jaso dute, eta, ekimeneko saskiak bezala, herriz herri zabaltzen ari dute, ekimeneko bi protagonistarekin solasaldia egiteko aukerarekin batera. Mutrikun dokumentalaren emanaldia urriaren 27an egingo da, arratsaldeko 6:30etan, Zabil kultur etxean.

PLAKA FOTOVOLTAIKO GEHIAGO HERRIAN

Mutrikuko Udalak energia berriztagarriak sustatzeko egin zuen lanaren ondorioz sortu zen Klik Energia Komunitatea. Sorreratik elkarlanean jardunda, mutrikuarrek energia sorkuntzan protagonista izan daitezen hainbat urrats eman dituzte. Ikastolako jolastokian egin zen estalkian urte hasieran eguzki-plaken instalazio ipini zen eta aurki hasiko da energia ekoizten eta hainbat herritarren fakturak merketzen. Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntza deialdian onuradun izanda, Musika Eskolan instalazio fotovoltaiko berri bat jartzeko 35.966,70 euroko diru-laguntza lortu da. Instalazio hori egiten denean, mutrikuar gehiagok hartu ahal izango dute parte proiektuan, eta energia garbia sortuz etxeko faktura merketuko dute. Urtebetean, energia berriztagarrien instalazioak jarri ahal izateko Mutrikura 80.000€tik gorako diru-laguntzak erakartzea lortu da.

KOFRADIA ZAHARRA BERRITZEN HASTEAREN

2017ko otsailaren 4ko goizaldean suak Kofradia Zaharra hartu zuenetik ia 10 urte bete direnean, eraikinaren titularra den Eusko Jaurlaritzak eraikina birgaitzeko azken urratsa eman du eta lanak egiteko esleipen prozesua burutu du.

Herriko portuari bizitza emango diolakoan, herritarren aldarrikapena izan da Kofradia Zaharra berriz irekitzeko lanak egitea. Halako baten, urtea amaitu aurretik lanak hastea espero da.

Beheko solairuan ostalaritza-espazioa atonduko da.

Lehenengo solairuan, erakusketa-espazioa atondu eta Bentaleku berritua kokatuko da.

Bigarren solairuan, bulegoak eta bilera-gelak.

1,4 milioi euroko inbertsioa eginda, Mutrikuko portuak eta Mutrikuko herriak eraikin enblematikoa berreskuratuko du herritar guztientzat.

FOSILEN BILDUMAREN DOHAINTZA

Ezaguna denez, Mutrikun mundu mailako amonite-bilduma handienetakoa eta garrantzitsuenetakoa dugu, Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteek urtetan eta urtetan bildutakoa eta mundu guztiari erakusteko Udalari eskainia.

Hirugarren hondartzatik Saturraran bitarteko labarren azpiko haitzetan mailu txikiak erabiliz eta kilo asko eta asko zituzten harriak mugituta lortu zituzten fosilak ateratzea, amoniteak. Haitzetatik hirugarren hondartzara eraman, eta handik Burumendira igo. Zientoka pieza atera zituzten horrela. Barrenkaleko etxean piezak eta piezak batzen joan ziren tokirik gabe geratu arte. Orduan, Jose Antonio Arkauz udal-langile zenarekin harremanetan jarri eta hantxe hasi zen Narvaez-Azkarraga bikotearen eta Udalaren arteko harremana.

Lehenengo, udalak espazio bat eskaini zion Jesus Mariri fosilen eta amoniteen lanketa egiteko: harritik bereizi, garbitu, apurtuak konpondu... Urteak beranduago, bilduma handitzen zen bitartean, lanerako zen espazio hura biltegi geratu zen eta Nautilus museoa eraiki zen Jesus Mariren eta Esperanzaren bildumaren bitartez amoniteen historia kontatzeko. Jesus Marik hantxe kokatu ahal izan zuen lantegi berria. Hobekuntzarekin pozik geratu zen bikotea, baina oraindik eta presentzia hobea eman nahi zieten milioika urteko fosil haiei, amonite haiei, eta lanean jarraitu zuten berean, eta udalak ere berean jarraitu zuen bildumak merezi zuen espazio egoki berri baten bila.

Azkenean, Konbentuaren eraikina berritzearekin, Nautilus museoa bertan antolatuko da, «Narvaez-Azkarraga» amoniteen bildumaren etxe berria izateko, Jesus Mariren tailerra bertan izateko, eta mutrikuar, euskal herritar eta munduko bisitari guztiei ezagutza horren berri emateko. Urte askotan zain egon ondoren, heldu da Barrenkaleko etxean kabitzen zuten bildumak erakusleirako ezin hobea izateko ordua.

Jesus Mari Narvaezen eta Esperanza Azkarragaren gogoa beti izan da amonite-bilduma bere etxean, Mutrikun, geratzea, eta hori horrela izan dadin, Udalarekin hitzarmena sinatu dute beren ehundaka fosil-piezek osatzen duten eta aurrerantzean «Narvaez-Azkarraga» izena izango duen bilduma irabazi asmorik gabeko erakusketaren parte izan dadin, ikerketarako eta dibulgaziorako helburuarekin.

Ainhize Azpiazu Alkateak, Jesus Mari Narvaezek eta Esperanza Azkarragak irailaren hasieran sinatu zuten amonite-bilduma udalaren eskuetan uzteko hitzarmena, hura ondo-ondo zaintzeko baldintzapean.



ONDAREA ESKUETAN

Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, Mutrikun bi ekitaldi burutuko dira urrian, *Esparbela* Historia eta Etnografia Elkartearen eskutik, ondarea herritarrengana hurbiltzeko helburuarekin. (Turismo bulegoan izena eman).

- Urriaren 3an, zapatua, 10:00etan hasita, Lonja Zaharreko arkupean elkartu, eta «Mutrikuko arrain kontserbak: lekuak eta oroitzenak» bisita komentatua burutuko da. Eskabetxearen historian murgilduko da, arrainak kontserbatzeko lehen teknikak eta Mutrikuko lantegi haien kokapena eta eraldaketa ezagutuaz.
- Urriaren 10ean, zapatua, 10:00etan hasita, Ibiritxo baserrira iritsi aurreko zabalgunean elkartu, eta «Mutrikuko karobiak eta mendiko labeak» ibilaldi gidatua burutuko da. Gure paisaia kulturean desagertzeko arriskuan dauden karobi eta mendiko labeen kokapena eta funtzionamendua ezagutzeko aukera izango da. Kareak baserri-munduan zuen garrantziaz jabetu eta diren egitura hauek bertatik bertara ikusiko dira.

ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK

Mutrikuko Udalak alokairuan bizi eta baldintza batzuk betetzen dituzten herritarrei dirulaguntzak emango dizkie, 2025 urtean hasitako bideari jarraituta.

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen *Gaztelagun* programaren baitako dirulaguntzak jasotzeko aukerarik ez duten mutrikuarrek, herrian urtebetean edo gehiagotan erroldatuta daudenek, dirulaguntzarako aukera izango dute alokairuagatik 750 euro edo gutxiago ordaintzen badute. Etxean dauden diru-sarreraren arabera, dirulaguntza handiagoa edo txikiagoa izango da.

Dirulaguntza-deialdiaren inguruan gehiago jakin nahi duenak udaletxera jo dezake etxebizitza bulegora, edo ondoko web orrian begiratu:

<https://www.mutriku.eus/eu/zerbitzuak/hirigintza/etxebizitza-bulegoa>

Eskariak egiteko epea irailaren 21ean hasiko da eta urriaren 9ra arte luzatuko da

LA HAINE

Egungo mundu gazi-gozo hau ikustea besterik ez dago gorroto jarrerak areagotzen ari direla konturatzen. Nola aldamenekoa zapaltzea ohikoagoa den, berorri esku bat eskaintzea baino. Nork bere interesak bermatuta, besteen eskubideak ukatu; eta are gehiago, min eta kalte.

La Haine pelikulak duela ez hainbesteko Frantziara eramango gaitu, krisi sozial baten barren-barrenera. Bertako errealtate kaotikoan bizi diren hiru gazteren bizitzetan murgilduko gara, beren balioak eta inguruarekin izaten dituzten talkak ezagututa.

Aukera asko daude gorrotatzeko. Gero eta gehiago, ematen duenez. Edo betidanik egon dira. Ezin jakin. Baina, gorrotatzeko aukera den bitartean, beti izango dugu beste aldetik joteko hautua. Maitxasunetik joatekoa.

«Momentuz dana ondo dijua...»



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: La haine **Urtea:** 1995

Zuzendaritza: Mathieu Kassovitz

Gidoia: Mathieu Kassovitz


Argazkia: Pierre Aïm

Aktoreak: Vincent Cassel, Hubert Koundé, Saïd Taghmaoui, Abdel Ahmed Ghili, Héloïse Rauth, Olga Abrego, (...)

Iraupena: 1 h 35 min

Tengo miedo torero

Pedro Lemebel



Pedro Lemebelen eleberria da Tengo miedo torero, Pinocheten diktaturako Txilera eramaten gaituena. Istorioak La Loca del Frente du protagonistatzat, bazterretan bizi den trabesti heldua, Carlos izeneko militante iraultzaile gazteaz guztiz maitementzen dena. Bien arteko harremana kontatzen du eleberriak, baina maitasun-istorio soil bat izatetik urrun dago. Lemebelek, pertsonaia marginalen bidez, bazterretan geratu diren istorioak argitara ekarri nahi ditu, erresistentzia-istorio bat kontatuz.

Pertsonaia marika baten ahotik kontzientzia politikoa hartzeari buruzko eleberria da honakoa, kurtsia eta zikina aldi berean. Errepresio eta pobrezia garaian, trabesti pobre baten bizitza krudelaren

bidez, memoria historikorako ariketa bat eskaintzen du, faxismoaren aurkako borrokaren beharrezkotasuna erdigunera ekarriz. Maitasun-abestiak, pamelak, purpurina eta begi margotuak nahasten ditu Lemebelek atentatuekin, erbestearekin eta manifestazioekin.

“Y su utopía es para las generaciones futuras
Hay tantos niños que van a nacer
Con una alita rota
Y yo quiero que vuelen compañero
Que su revolución
Les dé un pedazo de cielo rojo
Para que puedan volar.”

Pedro Lemebel (1986)
Manifiesto (Hablo por mi diferencia)



Omar Thior

Eskerrik asko entzun eta partekatu nahi izateagatik

2017 urtean iritsi zen Omar Mutrikura, Aida bikotearekin eta Olaia alabarekin. Aurretik Berrizen bizi izan ziren. Mutrikun bizitzen jarri ondoren, Erdiko kalen denda zabaldu zuten, mutrikuar guztiei zabalik egon den eta egongo dena: Bai Dakar.

Nolatan etorri zineten Mutrikura?

Mutriku ezagutzen nuen, Ondarruan gurasoekin bizi izan nintzelako. Baina kasualitate hutsa izan zen hona bizitzera etortzea. Etxebizitza bila genbiltzan, eta Mutrikun aurkitu genuen. Sei urte beranduago, 2023ko martxoan denda ireki genuen.

Bai, Dakar dendan Aida bikotea eta zu egoten zarete...

Gure alaba Olaiak dio bera dela negozioaren sustatzailea eta burua. *Bai Dakar* egotearen arrazoiak bat baino gehiago dira, eta errudunaren izena esatera ere ausartzen naiz: Leopold Sedar Senghor, traidorea. Hala deitzen nion nik, traidoretzat nuelako. Senghor Senegalgo politikaria izan zen. Estatuko burua izateaz gain, poeta, gramatikan katedraduna, idazlea... arlo ugaritan aritutako persona izan zen.

Denbora luzez Senghor ez zen nire debozioaren santu izan. Bere pertsonan benetan sakontzea erabaki nuen arte, nik Senegalen gaitz guztien erantzule egiten nuen ia, bai kolonizazio garaian, bai independentziaren ondorengo garaian. Baina denborarekin zerbait ikasi nuen, agian maizago gogoratu beharko genukeena historiako pertsonaia epaitzen ditugunean: Denborak, norberak irakurtzea erabakitzen duen liburuekin batera, erantzukizun handiko postu handiak dituzten figura historiko horien epailerik onenak dira.

Beraz, zure begiak irekitzeko balio izan zuen egindakoak

Honetan ez zen bukatu nire hausnarketa; Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarrak ere argi adierazten du bere "istorio bakarraren arriskua" argitalpenean, irakurtzen dugunak zelako eragina duen gudan. Izan herriak, izan pertsonak, izan kulturak... edozein gairen inguruan bertsio bakarrekin gelditzearen arriskuaz ari da, jarrera horrek kontakizun bakar hori egia osoa bilakatzeko arriskua duelako. Honen guztiaren ondoren begirada zabaltzeari ekin nion eta orduan agertu

zitzaidan Senghor humanista, intelektuala eta unibertuala, mundu zabalago baten bila zebilena, kultura desberdinek elkarrekin bizitzeko eta aberasteko izango zena, eta une huraxe izan zen Bai Dakarren mamia, arima zein izango zen erakutsi zidana.

Eta hiru urte ondoren bertan jarraitzen duzue...

Bai Dakar zalantza askorekin jaio zen. Baina, era berean, uste eta ideia argi batetik sortu zen: "Afrikarrek besteren lurretan zuzentzen zuten denda bat, jatorri afrikarreko pertsonen bakarrik zuzendutako saltokia baino askoz gehiago izan zitekeela". Gune pedagogikoa izan zitekeen. Narratibak deseraikitzeke gune bat izan zitekeen. Espazio txiki bat, non Afrika ez zen irudi urrun, exotiko edo estereotipatu gisa agertuko, baizik eta pertsonen, istorioen, kulturen, pentsamenduen, sorkuntzen eta pozen kontinente gisa. Irudikapen espazio bat. Baieztape gune bat. Nork bere herriaren garapenari, miniaturazko munduari eta kulturen hurbiltzeari bere parte-hartzea eskain diezaikegun leku bat. Eman eta jasotzeko gune bat. Hau da hiru urte hauetan gertatu dena. Galderak jaso ditugu. Jakin-mina jaso dugu. Historiak jaso ditugu. Afektuak jaso ditugu. Produktu baten bila etorri ziren eta beren bizitzaren zati bat gurekin partekatu zuten pertsonen bisitak jaso ditugu.


Bitxikeriaren bat izango duzu gogoan...

Egun batean sartu zen andre bat dendan eta Angela Daviden liburu bat ikusi zuen, eta berak ere literatur lan hura euskaratzen parte hartu zuela ikusi nuen. Eta bere amona mutrikuarra dela ere esan zigun. Dagoeneko Afrika ezagutzen dutenak eta harekin ia harremanik izan ez dutenak hartu ditugu. Jakin-minez sartu eta maitasunagatik itzuli diren pertsonak hartu ditugu. Eta guretzat balio handia duen zerbait ere jaso dugu: konfiantza.



Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

eguneko menua
daukagu



Alday
HORTZ KLINIKA

618 09 18 52 / 943 60 39 53
San Agustin 5, behea MUTRIKU

www.aldayhortzklina.com

Txanponak bi alde izaten ditu...

Gure istorioak eman ditugu. Ez denok ezagutzen dugun Afrikaren historia bakarra. Cheikh Anta Diopen "Nazio beltzak eta kultura" bezalako istorioak. Obra honek zalantzan jartzen eta desmuntatzen ditu zibilizazio beltz-egiptoarraren gainean eraikitako faltsifikazio historiko asko. (Gomendagarria) Bestalde, atzean izenak, lekuak, eskuak eta kulturak daramatzaten produktuak eman ditugu. Batzuk emakumeek egindako produktuak dira, eta horiekin lan egiten dugu, beren garapenean eta autonomia finantzirioan laguntzeko.

Liburuak aipatu eta aurkezpenak ere egin dituzue...

Solasaldiak, topaketak eta liburu aurkezpenak egin dira, eta, batez ere, aukera bat eskaintzen saiatu gara, askotan banandutzat aurkezten diren bi munduk, benetan elkarri esateko asko dutela jakin dezaten.

Beraz, betetako helburutzat jotzen duzue?

Ez dakit imajinatzen genuen guztia lortu dugun. Baina zerbait badakigu. Pertsona batzuk itzultzea lortu dugu, eta hori herri txiki batentzat asko da. Inoiz imajinatu ez ditugun elkarrizketak lortu ditugu. Pertsona batzuek lehen ezagutzen ez zuten zerbait ezagutzea lortu dugu. Eta lortu dugu, agian konturatu gabe, *Bai Dakar* bakarrik gurea ez izatea. Izan ere, proiektu batek bisitatzen dutenen bizitzaren parte izatea lortzen duenean, proiektu hori ez da abian jarri zutenena bakarrik.

Zergatik egon behar dugun harro? Agian oso kontu erraz bategatik: horma gehiegi altxatu ez dugulako, edo, behintzat, batzuk eraisten saiatu garelako. Eta ulertzea, denok egin behar dugula ekarpena. Ez dakit Senghorrek *Bai Dakar* bere ideien ondorio gisa onartuko zukeen. Agian ez, eta agian handiusteegia izango da bere pentsamenduaren oinardeko garelako esatea. Baina esan dezaket, hiru urte hauen ondoren, konturatu naizela gu Mutrikun eraikitzen saiatzen ari ginenak oihartzun sakona duela berak imajinatu zituen ideia batzuetan. Eta horrek berriro behartzen nau neure aurreiritziak berrikustera.

Bai, gure denda bizirik dago norbait sartu eta galdetzen duen bakoitzean jarraitzen duelako bizirik. Norbaitek zerbait berria aurkitzen duen bakoitzean. Norbaitek istorio bat partekatzen duen bakoitzean. Norbait itzultzen den bakoitzean. Zerbait eman eta trukean zerbait jasotzen dugun bakoitzean. Izan ere, zer eman eta zer jaso dugun bitartean, *Bai Dakar*rek izateko arrazoi bat edukitzen jarraituko du. Ez da denda bat bakarrik, familia batek bere komunitateari egiten dion ekarpena baizik. Mutrikuko gure komunitateari.



Bai Dakarren lagunekin solasean



Bai Dakarren lagunekin



Bai Dakar

Goitibehera Taberna

Errazioak / Entsaladak
Plater konbinatuak
Bokatak

943 004 935

Atxitxin kalea 20. Mutriku

Subeltz

ETXERAKO ZERBITZUA

602 070 478
943 901 465

Atxitxin kalea 10. Mutriku

QR kodea

informazioa eskuratzeko bide azkarra

Dagoeneko urte dezente dituen teknologia izan arren (90eko hamarkadaren erdialdean sortu zen), QR kodeak ez ziren asko erabili smartphone-ak sortu arte, eta Covid-19 pandemiak teknologia hori ohiko moduan erabiltzea erraztu zuen. Batez ere, kontaktu zuzena ahalik eta txikiena izateko, edozein taberna edo jatetxetako karta kontsultatzeko ohiko metodo gisa ezarri delako.

Baina QR kodeek jatetxeetako kartak ikusteko ez ezik, erabilera gehigarri ugari dituzte. Beraz, QR kode batek erabiltzailea datu batzuetara birbideratzeko balio du batez ere, web orri batera sartzeko, aplikazio bat irekitzeko edo fitxategi bat deskargatzeko. Artikulu honetan xehetasun handiagoz azalduko dugu zer QR kode mota dauden eta zertarako balio dezakeen QR kode batek. Ez galdu!

Zer da QR kode bat?

QR kodea etiketa optiko bat da, informazioa duena eta makina batek irakur dezakeena. Funtsean, barra-kode bat bezalakoa da, baina bi dimentsiotakoa. Baina zeure buruari galdetzen badiuzu zer esan nahi duen QR-k edo zehazki zer esan nahi duen QR-k euskaraz, jakin behar duzu «Quick Response code» edo «erantzun azkarreko kodea» siglei erantzuten diela.

QR kodeek informazioa bi dimentsiotan dute: horizontalean eta bertikalean. QR kodea karratu txikiagoko patroiez osatutako karratua da. QR kode bateko informazioa karratu txikiago horien antolamenduak kodetuta dago. Eta, eskaneatu ondoren, informazioa ematen du, beste edozein barra-kodek bezala.

QR kodeek informazioa bi dimentsiotan kodifikatzeak eta emateak onura ugari ditu. Abiadura da zirrargarrienetako bat. Izan ere, QR kodeak batez ere 1994an asmatu ziren eskaneatzeko abiadura handitzeko.

QR kode motak

QR kodeen bi bertsio daude: estatikoak eta dinamikoak. Desberdintasuna informazioa biltegiratzeko moduan datza. Kode hauek modu hartzailean erabiliz gero, ia ez dago alderik bata zein bestea erabili. Aldiz, QR kodearen bitartez hainbat informazio helarazi nahi duenak jakin behar du estatikoak ez duela aukerarik emango editatzeko, eta edozein aldaketa txertatu nahi izanez gero, kode berria egin beharko da. Kode dinamikoaren bitartez, berriz, eskaintzen den informazioa zuzendu, osatu, edota edonola edita daiteke QR kode bera erabili ahal izanda.

QR kodeak: geratzeko etorri den teknologia

QR kodea zer den ulertzea eta haren erabilera funtsezkoak dira gero eta digitalizatuagoa den mundu honetan. Kode horiek praktikoak izateaz gain, ekonomikoak eta pertsonalizagarriak ere badira, eta horrek ezinbesteko tresna bihurtzen ditu marketinean, hezkuntzan, bezeroarentzako arretan eta merkataritza elektronikoa. Gainera, dokumentuetan edo kokapen geografikoetan QR kodea eskaneatzea bezalako teknologiek aplikazioak zabaltu dituzte. Edozein erabiltzailek QR bat sortzeko duen erraztasunak, adibidez, mapa batean kokapen bat partekatzeko, indartu egiten du teknologia hori geratzeko iritsi zela.

Teknologia honek bere aldakortasunari eta erabilerraztasunari esker ospea irabazi du, telefono adimendun bat duen edonork Google Lens edo kamera integratuak bezalako tresnekin QR kode bat eskaneatzea ahalbidetzen duelako.



www.genqrcode.com



www.kalaputxi.eus



www.mutriku.eus



ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
zabalik asteburuetan
eta jai egunetan

Mutrikuko dendariak mutrikuarrentzat zabalik

AMETZA taberna

Ametza taberna, 103 urte, hiru belaunaldi eta herriarekin batera egindako bidea. 1923an, Jose Mari Zubizarreta eta Justa Ametza Tabernaren ateak zabaltzen hasi ziren. Urteak aurrera joan ahala, Miren Zubizarreta eta Jose Luis Lizarzaburuk hartu zuten lekukoa, eta gaur egun, Jose Luis Lizarzaburu semeak jarraitzen du familiaren bidearekin.

Hiru belaunalditan zehar, Ametza herriko jendearen topagune izan da, eta gaur egun ere pintxoak, bazkariak eta afariak eskaintzen jarraitzen dugu, betiko gertutasunarekin.



APARRA arropa-denda

Aparra, 1998an jaio zan, moda ezberdina eta egungoa hurbiltzeko ilusioarekin. Ia 29 urteren ondoren ere, bilduma hautatuak eskaintzen jarraitzen dugu, kontu haundiz aukeratuz jantzi eta osagarri guztiak. Guztiontzako moda, lerro gazteak eta egungoak, km zero/Euskal Herriko sortzaileak eta balio jasagarriak dituzten puntako markak eskaintzen ditugu.

Modaz haratago, kolorimetria zerbitzua eta asesorakuntza personalizatuak egiten ditugu, zu benetan zarena islatzen lagunduz.



ALBOKA kafetegia

Alboka 2005 urteko abenduan zabaldu zituen ateak. Egungo jabea 2008an hasi zen bertan langile moduan eta, bost urte beranduago, 2013an Albokako langile izatetik negozioaren gidaritza eramatera pasatu zen.

Alboka okindegi-kafetegian eguneroko bezero fidelak zaintzea da gure helburua, eta, nola ez, noizbehinkako nahiz bezero berriak esku zabal hartzea. Zerbitzuaren hobekuntza etengabearen aldeko apustua egiten dugu, egunero zerbitzu hobeago bat eskaintzeko.



AMA, eta amaren trazakoak

Momentu asko pasatzen ditugu amaren aldamenean, edo harengandik hurre behintzat. Hasieran bere eskutik, gero parean, eta azkenik bera da besotik heltzen diguna. Hori da bizilegea. Denok daukagu edo izan dugu ama, edo amaren trazako norbait. Ohartzen al gara haren itzalaz, eta ema(te)n digun guztiaz?

Lagun gutxi ezagutzen ditut euren ama estimu handitan ez dutenak. Aita ere bai, jakina, baina gaur ama ekarriko dugu lerruotara.

Ume batzuk *amazuloak* dira, eta beti amarekin egon nahi izaten dute. Ni ere horrelakoxea ei nintzen. Deigarria gertatu izan zait hitz hori, berez ez duelako halako kutsu negatiborik, beste hitz batzuek ez bezala; hor dauzkagu, esaterako, etxezuloak eta gezur-zuloak: lehenengoek etxean bertan goxo, ez dute beste inora joan nahi izaten; bigarrenak, berriz, gezurti hutsak dira, *egixa berdaderuak* zer diren ere ez dakitenak.

Amazuloa izendatzeko, Ipar Euskal Herrian antzeko hitza darabilte, *amaziloa*; Gipuzkoako herri askotan eta Nafarroan, *amazarroa*; Erronkari aldean, sasoia batean, *amakoia* zerabilten. Hitz gehiago ere badira, Txorierrri inguruan dioten *amakutxea* bitxia adibidez.

Sarritan gogorarazi didate ama ondo zaintzeko, bakarra da eta. Eta horrela da izan, norberak berea duelako, bakarra. Neure ama? Ez, *geure* ama. Seme edo alaba bakarra izanik ere, *geurea* delako, etxekoa.

Urteko egun seinalatueta, ahal izanez gero, gurasoen ondora jo ohi dugu. Jaiotzetiko erakarpenak eroaten gaitu etxekoen ondora. «Uraxe» ezizeneko mutrikuarrak gabonak ospatzera jaiotetxera inguratutakoak aipatu zituen Argia astekarian (1928-01-15), *erbestean bizi diran ainbat erritar, emen ditugu aitaren ta amaren onduan, ez baiño gaztaña zimela jatera, bixigu erriak eta kapoi guriak baño*.

Amak goxotasuna eta babesa ere ematen du. Horren lekuko, «Zaralde»k dakarren ohitura hau: umeren bat *haize txarrekin* zegoenean, osatzeko, Astigarribiako San Andres elizatzora eramaten zuten, *lbaiko ur meetan-zeur, aita arraun ta arraun, amak berriz ume gaixoa altzoan ongi bilduta otoitz eta otoitz, an ikusiko dituzu txalopa lirañetan Astigarribia'rontz barebare. Ander Deunaren oñetan, aldare-gañean umea luze-luze ipiñi, otoizketan senarra aspertuarterañojo jardun aldi bat egin, eta umetxo gaxoa ez du geyago aize txarrek joko* (Argia, 1923.12.02).

Amak, hamaika zereginez gain, seme-alaben heziketaz ere arduratzen ziren. Ez etxean bakarrik, baita udalarekiko harremanetan ere, gurasoen ordezkari gisa.

1918ko irailaren 23an Udalak Aizpurua eta Odriozola zinegotziak izendatu zituen Tokiko Instrukzio Batzordean parte har zezaten; horiekin batera, bi aita eta bi ama ere aukeratu zituzten batzorde horretan parte hartzeko, *dos padres y dos madres*, D. Jose M^a Egaña, D. Jose Maiz, D^a Maria Mendizabal y D^a Eugenia Piquer.

1848an Francisco de Paula Madrazo (1817-1868) idazle bartzelonarrak *Una expedición a Guipúzcoa* lana argitaratu zuen. Debako bainulariak Mutriku bisitatzea joaten zirela aipatzen du. Udaletxean bazkaldu ohi zutela dio, *un almuerzo abundante, aunque sencillo*. Fokua hango zerbitzari gazte eta liraineen jarri zuen Madrazok *que suele servir, generalmente una joven de veinte abriles, llamada Inés, que es sin disputa, á juicio de los inteligentes, una de las muchachas mas bellas de la provincia*. Neskatala polit haren ondoan ama eta amona ibiltzen ei ziren, neskatala hura babestearren, *la madre y la*

abuela de la muchacha, que la acompañan siempre por temor de que en la precipitación de sus pocos años se la rompa algun plato. Platerak apurtzea baino beldur handiagoa eragingo zien, seguru, bertara inguratzen ziren gizon batzuek.

Baina, behar denean, amek errieta egiten ere badakite. Euren haserretxoa agertu arren, ez dira joango seme-alabengandik urruti. Mutrikuko pasadizo xeble baten berri eman zigun «Iñor ez» ezizeneko batek: *Lengo egun batian emen pasa dan bezelakorik ez da iñon pasatu. Eiztari bi mutil gazte juan dira eizera ollagorak ekartzeko asmotan oietako batek tira omen du tirua danbaaaa, joan da saltaka, ankaz gora ardia; artu du bizkarrian, ekarri dio amari, eta amak erdi errieta eta erdi negarrez egin ditu odolkiak ta nastu azakin lapikuan* (Argia, 1931.01.11).

Umetan, eta aurrerago ere bai, amari goxotasunez *amatxo* esaten diogu askotan. Txurrukatarrak ere halaxe esaten zioten euren amari. Cesareo Txurruka apaizak 1879. urtean Evaristo anaiari idatzitako gutun batean aipatu zion euren amak Alejandro anaiaren idatzi bat helarazi ziola, *me la incluyó la Amacho para que la leyerá yo*. Hiru horien ama Maria Carmen Brunet (Lekeitio, 1811-1902) izan zen.

1928. urtean Mateo Osa boxeolari mutrikuarrak Espainiako txapela eskuratu zuen. Hori dela eta, Calixto Basterretxea «Itxas Aurre»k bertsoak idatzi zizkion. Hau dugu horietako bat: *Amak egin du ori orlako semia, / indar aundikua ta entero puertia;/ itxurako gizona altu ta gaztia. / Ondo egiña dauka gorputz egokia, / mutrikuarra da ori olako kastia* (Argia, 1928.11.18).

Amak gu mundura ekarri bakarrik ez, hona etorrita ere makina bat gauza erakutsi eta irakasten dizkigu. Berarengandik ikasi dugu begiratzen, entzuten... Hitz egiten ere, gehienok amaren eskutik ikasi dugu, hortik «ama-hizkuntza»ren kontzeptua.

«Itxas Aurre»k, San Agustinen bederatziaurrenean egin ziren euskarazko hitzaldiengatik pozik, hau idatzi zuen Argian 1930eko abuztuaren azken egunean: *Bañon ez uste izan erderari gorroto diogulako poztutzen geranik. Poztutzen gera gure amak irakatsitako itzkuntz berdingabea itzaldi onek egiten ari diralako*.

Amak utzitako arrastoa begi-bistakoa da edonorengan, balioak, ohiturak, esapideak... Badira horiek ondo laburtzen dituzten esaera zaharrak: Umearen zentzuna, etxean entzuna. Zer ikusi, hura ikasi.

Beste ama batzuk

Ama bakarra daukagun arren, gehienok amaren *trazia* daukaten beste emakume batzuk dauzkagu inguruan. Horiek ere, neurri batean behintzat, amatzat har ditzakegu.

Emaztearen edo senarraren ama, amaginarreba, bigarren amatzat daukate askok. Etxeko seme-alaben amona ere bada, eta, jakina, bera ere erreferentziazko emakumea izan ohi da guretzat.

Bataioko ama ere eduki dezakegu. Euskaldun batzuek *amabitxia* esaten diotenari Mutrikun *ama besuetakua* edo *ama puntakua* (*puntakua*) esaten diogu. Lehenengo hitzak adierazten duenez, emakume horrek bataioan besoetan hartzen



Josu, Leire, eta Ama,
Mertxe Arrieta Jauregialzo «Bernabe»

zuen besoetako umea; bigarren hitzan, berriz, bataio-harria du oinarrian: fuente>fonte>ponte>punte.

Argia astekariko bi kronika ekarriko ditugu adibide gisa. Iñaki Iriondo «Arno Mendi» idazleak honela eman zuen Miguel Maria Urreizti Azpiaz (1927-1981) bataioaren berri: *Igaro zan astean seme eder bat izandu zuan "Urreizti" baserriko Urreizti'tar Manuel'en emazteak "Mikel Mirena" euskel izena ipiñirik aita-ama besoetako izanik Urreizti'tar Migel apaiz jaun argia ta Etxeberria'tar Maria Karmen neskatilla gaztea* (Argia, 1927.06.12).

«Itxas Aurre»k, berriz, beste bataio baten berri eman zuen: *Aurtxo bat badute Olaziregi'tar Isidoro ta bere emazte Anjela'k; ugutzatu dutenian ezarri diote Mikel Xabier izanik aita puntako ta ama puntako Landa'tar Migel ta Basterretxea'tar Telesfora. Zorionak guztiari* (Argia, 1930.07.20).

Seme-alaba batzuek etxera etorriko emakumea hartzen duten amatzat. *Amaordia* edo *amatzakua* esaten zaio, amaren orde zatorrelako, eta amatzat (amatzat+ko) hartzen dutelako. Beste toki batzuetan *amaerdia* edo *amaizuna* esaten diote.

Betiko amaordea izan gabe, baziren tarte baterako amak: inudeak edo *añak*. Inoren umeari bularra ematen zioten edo hura zaintzen zuten emakumeei esaten zitzaizen horrela.

1855eko udan kolera izurriak edo epidemiak gogor astindu zuen gure herria; mutrikuar ugari hil ziren, tartean ama asko. Ama galdutako ume txikitxoak hazi zituzten emakumeei dirulaguntza eman zien Udalak, *pagará a las nodrizas que por cuenta y encargo de la misma se encargaron de la lactancia de los huérfanos de madres que quedaron por muerte de estas con la epidemia colérica*. Aldi baterako ama edo *aña* haietako batzuen berri emango dugu. Abeletxeko Josefa Agustina Aizpuruak Francisca Javiera Galdona umea hartu zuen; Larangaetxeberri baserriko emakumeak ere beste ume bat zaindu zuen, *se halla encargada de la lactancia de la criatura de Josefa Garayzabal y Galdos*.

Ume horiek etxe batean baino gehiagotan egon zitezkeen: *Manuela Antonia de Yribe recibió una niña de Manuel Muguerza en 3 de agosto, y despues tubieron dicha niña en 16 dias en Esquiaga y Mote*.

Zentzu abstraktuan ere erabili izan da gurean «ama» hitza. Patxi Lizardi «Kaialde»k, esaterako, amatzat zuen Euskal Herria: *Euzkadi gure ama maite ori kate gogorrez lotua espetxian arkitzen da, ta kate orrek nork uste dezue lotu diola? Nork? Geuk irakurle, geuk. Eta nola baño? Ara, askotan euskera bazartu ta "tapa-tapa" erderaz jo ta kia ari geranian* (Argia, 1934.01.07).

Zeruko ama

«Txoritxu bat» ezizeneko batek aberriaren aurka egotetik

abertzale bihurtzera pasatutako mutrikuarrak aipatu zituen kronika batean, *Orain amar-amabost urte, arerio gogor eta sutsu agertzen ziranak ara emen biotz oso-osorik ama Aberria'ren magalpean ots eta deika: Ama, ama, ez jakiñez gorrotatu bazaitut... azketsi!!!* (Argia, 1932.05.15).

1927ko otsailean euskararen aldeko batzarra egin zuten Antzomendin Mutriku, Ondarroa, Deba, Mendaro eta Elgoibarko ordezkariak. «Arno Mendi»k batzar horren berri ematean, euskara bera jo zuen amatzat, *Gure ama Euskerari ainbat atsekabezko egunen artean, eder ta maitekor zaion bat bada ere eskeñi naiaz ekin diogu ba sutsu ta sendo*.

Zeruko ama edo Ama Birjina ere sarritan aipatu izan da, modu askotan aipatu ere.

J.M. Burgaña «Murugain»ek, alegoria polita eginez, mutrikuarrak txoritxat hartu zituen, Arnoko gurutzea arrantotzat eta Kalbarioko eliza txori-amatzat: *Mutriku-kabi'ko txoriak ondo gorderik gaudez, benetan, etsayagandik, bada Kalbaixoko txori-ama kabiaren ertzean kurutza dagon bitartea, Arno gallurreko "arrano" aita beti daukagu ernai eta gertu urrutitik etorri lezakearen "zapaleitz" zatarrak uxatzeko* (Argia, 1930.09.14).

Mutrikutik Arantzazura egindako joan-etorriaren berri ematean «Arno Mendi»k Ama esaten dio Ama Birjinari, *iritxi bezin laister Amarenganatu giñan biotzeko ongietorriak xamurrena zuzentzen giñola* (Argia, 1925.08.30). Garrantzi handia eman izan diote mutrikuarrek Ama Birjinari. Horren lekuko lurruntzi bati *Arantzazuko Ama* izena jartzea: *astelenian atera zan lenengoz egaluzetara "Arantzazu"ko Ama" izena dun Arrizabalaga'tar Martin'en lurruntzi berria* (Argia, 1927.08.28).

«Itxas Aurre»k ere Ama darabil, *badatorkigu urreratzen urtean degun illik alaiena eta lore ill alai onetan gure Ama maiteari eskeñiko dioguz lorerik ederrenak*. Bertsotxo bat ere eskaini zion, *Goazen eramatera loreak ugari / animatikan maite degun Amari* (Argia, 1931.04.26).

Maiatzeko lore eskaintzen berri ematean, berriz, *Goiko Ama* aipatu zuen «Arno Mendi»k: *orrilla degula ta, aunditasun osoaz ospatzen dituzte gure elizetan Goiko Ama'ren aparizko lore eskeintz eder-ederrak* (Argia, 1927.05.15).

Denborarekin badakigu amaren azala zimurrago egongo dela, begiak distira galduta, eta ibilkera narrasago izango duela... Eta hainbatetan entzundako esaldi gordina helduko zaigu belarri-zulora: *hamen ez goz betiko*. Ama joandakoan isildutakoez damurik ez izateko, nahigaberik ez izateko egin gabe utzitakoez, gaur, orain, bihar arte itxaron gabe... esker ona agertu, lagundu edozertan, gozatu bere alboan. Azken egunera arte.

Bakarra edo «bat baino gehiago» eduki arren, zaindu ditzagun amak!

Josu Larrañaga Arrieta

Juan Mari Altzizkueta egurra, ofizioa eta ondarea

Juan Maria Altziskueta lanabesek eta egindako lanek ofizio baten balioa eta belaunaldi baten bizimodua gogorarazten dituzte. Gaur, Mutrikuko artisautzaren eta memoria kolektiboaren ondare bihurtu dira.

Mutrikuko kale eta etxe askotan geratu dira Juan Maria Altziskueta eskuek egindako lanak; ateak, leihoak, egurrezko zoruak, armairuak edota mahaiak. Baina egurra lantzeaz harago, ofizio bat ulertzeko modu bat utzi zuen ondare: pazientzia, zehaztasuna eta lanarekiko maitasuna. Juan Maria Altziskueta Basurko 1942an jaio zen Mutrikan, Sabanika kalean. Bi anai-arrebetatik gazteena izan zen. Bere haurtzarora, ordea, galera mingarri batek markatu zuen: Bernarda arreba meningitisak jota hil zen 14 urte besterik ez zituela.

Arotzaren ofizioa etxean bertan ezagutu zuen. Ama, Isidora, etxekoandrea zen, eta aita, Domingo, herriko arotza. Txikitatik hasi zen aitari laguntzen tailerrean, egurraren usaina eta lanabesen hotsa eguneroko bizimoduaren parte bihurtuz. Hamabost urte ingururekin Donostiara joan zen, aroztegi batean ikasi eta lan egiteko. Hiru urte inguru eman zituen bertan, soldadutzara joan behar izan zuen arte. Garai hartako oroitzapen goxoak gordetzen zituen beti Juan Mariak. Soldadutzatik itzuli zenean, aitarekin batera hasi zen berriro lanean, San Jose kaleko

tailerrean. Domingok ofizioa uztean, semeak hartu zion lekukoa, eta ordutik aurrera berak gobernatu zuen tailerra. Gehienetan bakarrik jardun zuen lanean, nahiz eta noizean behin beste gremio batzuetako langileek laguntza eskatu.

Bere lan nagusia zurgintza izan zen. Egurrezko zoruak, ateak, leihoak, oheak, mahaiak, armairuak eta neurria egindako altzariak egiten zituen, xehetasun bakoitza mimo handiz zainduz. Azken urteetan, berriz, konponketa txikiagoak eta herriarrek eskatutako era guztietako lanak egiten hasi zen: etxe oso baten eraberritzetik hasi eta sarraila bat ordezkatzera arte. Izan ere, bere etxea bera da bere lanaren erakusgarri onena. Senideek irribarrez gogoratzen dute: «Etxe osoa egin zuen. Lurretik hasi eta azken armairuraino bere eskuetatik ateratakoea da». Oraindik ere mimo handiz gordetzen dituzte berak egindako hainbat pieza, tartean bereziki maite zuten egurrezko kutxa bat.

Ofizioa maite bazuen ere, ez zuen inoiz idealizatu. Etxean



Juan Mari, aita Domingoren ondoan



f ALAZNE OPTIKA



Jose M^a Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01




Juan Mariak eta aita Domingok erabilitako lanabesak, familiak herriari utzitakoak

sarritan esaten zuen arotzaren lana gogorra zela: ordu asko eskatzen zituela eta, askotan, ez zela behar bezala ordaintzen. Azken urteetan kezka handiz ikusten zuen artisau-lanak gero eta zailago zuela altzari industrialekin lehiatzea eta azalera handietako eskaintzekin. Alabek ez zuten inoiz ofizioarekin jarraitzeko asmorik izan. Ez zelako erakargarria iruditzen, baina, batez ere, aitag egin zuen sakrifizioaren jakitun zirelako.

Arotz ona izateaz gain, Juan Mariak beste zaletasun handi batzuk ere bazituen. Argazkilaritza zen horietako bat. Argazki-kamerarik gabe ia ez zen inora joaten. Paisaiak, loreak, mendiak, etxe zaharrak edo bidean aurkitzen zuen edozein xehetasun bihurtzen ziren bere objektiboaren jomuga. Autodidakta izan arren, begirada fina zuen, eta urteetan bildutako argazkiak garai baten lekukotasun baliotsua dira. Mendia ere pasio handiz bizi zuen. Ormolako Putzua, Arno, Urbia eta inguruko parajeak maiz bisitatzen zituen. Apaingo Ama Birjinaren irudia berak eta Juan Mari «Bernabe»k jarri zuten, eta oroitzapen berezia gordetzen dute senideek ekimen hartaz.

Juan Maria hil ondoren, familiak beste erabaki garrantzitsu bat hartu behar izan zuen: zer egin urte luzez bildutako tresna eta lanabesekin. Ez zuten botatzeko bihotzik. Izan ere, tresna haietako asko Juan Mariak berak erabilitakoak ziren, eta beste batzuk aitonaren garaitik zetozen; ehun urte inguruko piezak ere baziren. Komentu Berrian tresna horiek erakusketa iraunkor baten parte izan zitezkeela jakin zutenean, ez zuten zalantzarik izan. Familia osoarentzat hunkigarria izan zen erabakia. Horrela, tailer bateko lanabes soilak izatetik, Mutrikuko artisautzaren eta memoria kolektiboaren ondare bihurtu dira.

Azken batean, Juan Maria Alziskuetak ez zuen bakarrik egurra landu. Herri oso baten eguneroko bizitzaren zati bat eraiki zuen, isilean eta apaltasunez. Gaur, bere tresnek eta egindako lanek ofizio baten balioa eta belaunaldi baten bizimodua gogorarazten dituzte.



ASTIGARRAGA ANAIK, S.L.U

ERAIKETAK

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Kalbaixo
JATETXEA

Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa

....ZORION AGURRAK....



EKHI

Zorionak Ekhi!
Gure etxeko ganberruak
7 urte handi!
Muxu handi bat lera,
Ixiko, Osaba, Atxona
eta Aumen partez



ENEKO

ZORIONAK ENEKO!!!!!!
Segi holakotxe
energixa ta poza
ematen inguruko
danoi.
6 matxo haundi
etxeko danon partez!!



GARI

Zorionak ganberro!!!
Abuztuan 4 urte bete
zendun eta earki
ospatu gendun.
Matxo handi bat
danon partez!!!



GURUZNE

Zorionak zure urte
betetzean. Katxas-
Getari familiako kideok
egun eder bat igaro
dezazula opa dizugu,
eta jarraitu horrelaxe
urte askuan.



GURUZNE

Zorionak ama!
Jarraitu zaren
bezalakoa izaten, baita
danborradan parte
hartzen ere!
Maite zaitut.



ANER

Irailaren 25ean 15 urte!
Zorionak etxeko guztion
partez bereziki Danel,
Adei, Naiane Ibai, Enaitz
eta Eberrek.
Aupa txapeldun!



OIER

Zorionak Oier! Heldu gogor
bizitzari eta ez galdu inoiz
abenturarako gogo hori!
Etxeko danon partez
4 matxo handi!



AUGUSTO eta NAIANE

Augusto ta Naiane, abuztuaren 1ean
zuen urtebetetzia izan zalako mila
zorion bixontzat etxeko denon partez,
bereziki Aner, Adei, Danel, Ibai, Enaitz
ta Eberren partez. Aupa zuek!!



AIARA


Zorionak Aiara!
Dauaneko 10 urte...
jarraitxu zean bezelakua
izaten, asko matxeizugu.

ZORION AGURRAK eta ARGAZKI ZAHARRAK

kalaputxi2001@gmail.com

telefonoa eta whatsapp

635748393 #



LUKEN

Zorionak irailaren 7an,
urte berri bat bete
zenuelako!
Etxeko denon partez,
disfrutatu ta muxu
potolo bat!!!!



JOSEBA

Zorionak, aitzona!
Abuztuan 60 urte
bete zendulako. Urte
berezixa aurtengua!
Muxuak Maren eta
Xugarren partez!



EKAIN eta GARI

Abuztuak hogeitabost
Eta irailak bi
Kandela bat gehiago
Jarri pastelari
Zorionak etxeko
Kilker pareari
Muxu potolo bana
Ekain eta Gari

hitza


herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku


Argazki Zaharrak



LAGUN KOADRILLA, 1957. urte inguruan, Malen jaietan

Pedro Camaño, Mari Carmen Egia, Ana Mari Lezertua eta Jesus Aizpurua.

Kukulumutxu: Miguel Goenaga eta Milagrosa Garagarza.



IRAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
21 Lasuen Elez	22 Lasuen Elez	23 Lasuen Elez	24 Lasuen Elez	25 Lon Apraiz	26 Lon Apraiz	27 Lon Apraiz
28 Burgoa	29 Burgoa	30 Burgoa				

URRIA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

			1 Burgoa	2 Zalduegi	3 Zalduegi (1)	4 Zalduegi
5 Apraiz	6 Apraiz	7 Apraiz	8 Apraiz	9 Lasuen Elez	10 Lasuen Elez	11 Lasuen Elez
12 Zalduegi	13 Zalduegi	14 Zalduegi	15 Zalduegi	16 Burgoa	17 Burgoa (2)	18 Burgoa
19 Lasuen Elez	20 Lasuen Elez	21 Lasuen Elez	22 Lasuen Elez	23 Lon Apraiz	24 Lon Apraiz	25 Lon Apraiz
26 Burgoa	27 Burgoa	28 Burgoa	29 Burgoa	30 Zalduegi	31 Zalduegi (1)	

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA 09:00 - 22:00

Larunbat goizetan zabalik 09:30-13:00
Igande goizetan zabalik 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba)667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA 22:00 - 09:00

ELORTZA ELORTZA....943 20 61 00
Juan Gisasola kalea 18, 20600 Eibar

IRAILA

- 25** 11:00 L Kulturarteko topaketak
- 26** 17:30 Mijoan Auzoen arteko desafioa
Galdonamendi vs. San Jeronimo
Olatz vs. Ibiri
- 20:30 Mijoan LAKET taldearekin erromeria
- 27** 11:00 Mijoan Jolas erraldoi dinamikoak eta txirrista erraldoia
- 14:30 Mijoan Auzo-bazkaria
- 19:00 Kofradian Kontzertua: Rudiger
- 29** 17:00 Liburutegia Ipuinaren ordua (2-4 urte) Nola dastatu ilargia
- 30** 12:00 Mijoan Meza
Ondoren, herri kirolak: Mikel Agirre eta Ernesto Ezpeleta «Bihurri»
- 14:00 Mijoan Auzotarren bazkaria

URRIA

- 3** 10:00 Lonja zaharrean Bisita komentatua:
Mutrikuko arrain kontserbak: lekuak eta oroitzenak
- 9** 18:00 Luardo Lotune ikastaroa: Zoru pelbikoa eta hipopresiboak
- 10** 10:00 Ibiritxo aurreko Bisita komentatua:
errebueltan Mutrikuko karabiak eta mendiko labeak: ibilbide gidatua
- 16** 18:00 Luardo Lotune ikastaroa: Zoru pelbikoa eta hipopresiboak
- 18:30 Zabel Geuretik sortuak Film laburrak
- 23** 18:00 Luardo Lotune ikastaroa: Zoru pelbikoa eta hipopresiboak
- 27** 27:00 Zabel ERRIGORA dokumentala eta solasaldia

BISITA GIDATUAK

- Zazpi hondartzak • Mutriku marinela • Olatu planta •
 - Nautilus, Flyscheko fosilak • Arrietakua jauregia •
- Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2026

urriak 16

• abenduak 18 •

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI-IRTEERAK 2026

- Urriak 18** IOAR (Aurrera MT)
- Azaroak 15** ARALAR (Burdin Kurutz MT)
- Abenduak 13** MARKINA



aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
urriko aldizkarian
argitaratzeko
urriaren 9rako
bidali zuen mezuak

MUTRIKUKO TANATORIOA

Iriagirre z/g

Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

OSPAKIZUNAK, DAZKATIAK, PATATIAK, EGUNEKO MENUA...

SAN JUAN JATETXEA

Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa
Tel.: 943603167 (jartetxeakoa)



VITORIAOPTIKA

O P T I K A - A U D I F O N O A K

AUDIOPROTESISTA
EGUNERO ZENTROAN
AUDIOMETRIA DOAN

AUDIFONOAK BERRITZEKO
GURE PROMOZIOEI
BURUZ GALDETU

IPARRETIK ERRIBERARA

30 URTE GUZTIRA!
Eskerrik Askok!



ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA (BIZKAIA)

94 613 41 38 ✉ optikavitoriaondarroa@gmail.com



CORREDURÍA de SEGUROS

Pedro Basurco - Amaia Pagoaga

Eskerrik asko 30 URTE hauetan gudan jarritako
konfiantzagatik eta gure zerbitzua aukeratzeagatik.
Etorkizunean ere, zuen ondoan egoteko konpromisoari
sendo eusten diogu.



943 74 80 13

Deba kalea 2, behea
20870- Elgoibar

WWW.SEGURARNO.COM
segurarno@segurarno.com

MUTRIKUKO HAURRESKOLA

MATRIKULA EPEA

urriaren 1etik 8ra, azaroan hasteko

Hilabetero 1etik 8ra matrikulatzeko aukera,
apirilera arte (apirila barne)



*Haurreskola txikia,
familia handia*

Hirigibel, 3
943 60 41 19
mutriku.mutriku@haurreskolak.eus
www.haurreskolak.eus

